

## MERKATU SEGMENTAZIOA:

Atal honetan, gure bezeroak definituko ditugu, izan ere, beraiek gure proiektuaren negozio-ereduaren funtsa dira. Beraiek barik gure ideia ezin zen garatu ahal.

Gure proiektua jende guztira zuzenduta dago, baina batez ere, diru gutxi duten pertsonen. Jendearen adinak ez du axola gure negozioan, hau da, dendan urte guztietako arropa eta generoak izango ditugu.

Era berean, bigarren eskuko arropa erabiltzea eta diru gutxiago gastatzea nahiago duten guztiei zuzenduta dago, denbora gutxi barru modan egongo den arropa berria diru asko gastatzea baino.

Gure negozioaren merkatu mota, lehia inperfektuko merkatua da, lehia monopolistan oinarrituta, hau esan nahi du, merkatu-egitura mota horretan, hainbat enpresk antzeko produktuak edo zerbitzuak eskaintzen dituzte, baina bakoitza ezaugarri bakarren bidez bereizten saiatzen da, kontsumitzaileak erakartzeko. Lehiatzen diren arren, nolabaiteko kontrola dute beren produktuen prezioaren gainean, bereizketa horien ondorioz.

Gure negozioan pertsona aktiboak behar ditugu, gure dendetan erosi nahi dutenak eta handiagoak egiten lagunduko dituztenak. Era berean, hobetzeko ideiak emango dizkiguten eta gure negozioan laguntzeko edozein oztopo duten pertsonak behar ditugu, hau da, gure negozioarekin konprometituko den jendea behar dugu.

